

EROSKETA BONOEN KANPAINA

Covid-19aren izurritearen egoera hau dela medio, Irurako Udalak herriko merkataritza eta ostalaritza zaindu eta bultzatzeko duen konpromisoa gauzatzeko ekimena jarri du martxan.

egin
irura,
 kontsumitu herrian.

Zer? Erosketa bonoak, herriko saltokietan erabiltzeko.

Nola? 50 euroko balioa duten lotreak 40 eurotan erosiko dituzte herritarrek. 10 euroko 5 bonoko lotea.

Noiz? Ekainean hasiko da, eta abuztuaren 31ra arte iraungo du.

Zenbat? Lote bat pertsonako.

Non? Udaletxeko harrera bulegoan, 09:00etatik 14:00etara bitartean, ekainetik aurrera.

Herritarrak eskaintza berezi honetan parte hartzera animatzen ditu udalak, erosketak herriko komertzioetan egitea garrantzitsua baita.

DESKARGATU APP BERRIA



IRURA
 ESKURA



OHARRA

COVID-19aren inguruko oharrak www.irura.eus webgunean aurkituko dituzue.

NOTA

Toda la información en castellano en www.irura.eus o en la **oficina de cultura**



Ekainak 11
TENPORA



EKAINAK 18

IRURAKO DANTZARITXIKIEN ERAKUSTALDIA



euskara



castellano

4/ ostirala 18:00-21:00

Errekaldeko terrazan

D.J. LAMBRETTA

- Publiko guztia
- (Errekalde tabernak antolatuta)

**11/ ostirala 19:30** San Migel Plazan**TENPORA MUSIKA TALDEAREN KONZERTUA**

“Berriro asma nazazu” Tenpora taldearen 3. Diskoaren aurkezpena. Pop-a eta jazz-a artean sortu, eta elektronika eta rock progresiboa bezalako eremuetan murgiltzen diren abestiak.

- Publiko guztia
- *Gonbidapena eskatzen du*
- Oharra: Eguraldi txarra egiten badu, kontzertua beste egun batera atzeratuko da

**12/ larunbata 10:00-14:00 eta 15:00-19:00** Kulturgunean**AUTODEFENTSA FEMINISTA TAILERRA**

Emagin elkartearen eskutik

- Euskaraz
- Emakumeentzat
- *Gonbidapena eskatzen du*
- (Irura Moretuz talde feministak antolatuta)

**13/ Igandea 11:00** San Migel Plazan**T3T MENDI MARATOIAREN ANOA-GUNEA**

- Oargi mendi elkarteak antolatua

15/ asteartea 17:30 San Migel Plazan**PLAZA IRRINTZIKA HAUR BERBENA**

Dantzaren eta euskal kantuen bidez gorputza eta ahotsa piztuko dituzte bertarututakoek. Saioari bukaera eder bat emateko irrintzia botatzen ikasiko dute.

- Publiko familiarra
- Euskaraz
- *Gonbidapena eskatzen du*

**18/ ostirala 18:00** San Migel Plazan**IRURAKO DANTZARI TXIKIEN ERAKUSTALDIA**

Ikasturtean zehar ikasitakoa aurkeztuko dute.

- Publiko guztia
- *Gonbidapena eskatzen du*
- (Lats Dantza Taldeak antolatuta)

**18/ ostirala 19:00** San Migel Plazan**EUSKAÑOLITIS****OIHAN VEGAREN BAKARRIZKETA**

Oihan Vega telebistako aurkezle ezagunak, euskararen erabileraren inguruko hausnarketa egitera gonbidatzen gaitu bakarrizketa dibertigarri eta ironiko honekin, musikaz, kantuez eta zineaz lagunduta.

- Euskaraz
- Publiko guztia
- *Gonbidapena eskatzen du*

**19/ larunbata 18:00-21:00**

Errekaldeko terrazan

BASAGAIN SOUND SISTEM

- Publiko guztia
- (Errekalde tabernak antolatuta)

**25/ Ostirala 18:00-21:00** Enara tabernaren terrazan**80.HAMARKADAKO MUSIKA**

- Publiko guztia
- (Enara tabernak antolatuta)